



Bihar hasiko da emakumezkoen traineru liga berria, emakumeen traineru elkarteak antolatua. Liga hau, aurreko urteetan Gipuzkoako federazioak antolatzen zuenaren oinordekoa da. Lehenengo estropada, sailkapenari begira puntuagarria izango ez dena, Portugaleten jokatu da igande honetan; ekainak 17 11:30etatik aurrera, jokoan Portugaleteko XXXVII. bandera egongo da. Ezkerraldeak Kaikuren ordezkari izango du. Sestaoarrekin batera: Donostia Arraun Lagunak, Donostiarra, Hernani, Hibaika, Hondarribia, Orio, San Juan, Tolosaldea, Deustu, Lea Artibai, Lapurdi eta Kantabriatik Colindres parte hartuko dute ligan. Estropada zuzenean ikusi ahal izango da ETBko lehenengo kanalean.

Beste alde batetik emakumeen ligarekin batera, mutilen ARC 1 liga hasiko asteburu honetan Portugaleten baita ere. Kasu honetan bandera bi jardunalditan jokatu da. Gaur larunbata erlojuaren aurkako estropada egongo da 12:00etatik aurrera. Bihar emakumeen frogaren ondoren, estropada normala jokatu da txanda bakoitzean 4 traineruekin. Bandera irabazteari begira bi jardunaldietako denborak kontuan hartuko dira baina ligako sailkapenerako, bakarrik hartuko da kontuan igandeko jardunaldia, gaurkoa ez baita puntuagarria. Ezkerraldeak ordezkari bakarra izango du: Portugalete. Jarrillerarekin batera Euskal Herriko beste 9 arraun elkarte egongo dira ARC 1 ligan: Arkote, Deustu, Getaria, Hibaika, Lekittarra, Lapurdi, San Juan, Zarautz eta Zumaia. Kantabriak aldiz bi ordezkari izango ditu: Astillero, ACT ligitik jaitsi berria eta Pedreña.



PORTUGALETE

2	XXXVII BANDERA
0	
1	NOBLE VILLA DE PORTUGALETE
8	

DOMINGO 17

JUNIO

11:30 H

I REGATA DE LA LIGA FEMENINA DE TRAINERAS E.T.E.

EMAKUMEEN TRAINERU ELKARTEA - ASOCIACIÓN DE TRAINERAS DE MUJERES

DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK - DONOSTIARRA - HERNANI - HIBAIIKA - HONDARRIBIA
ORIO - SAN JUAN - TOLOSALDEA - KAIKU - DEUSTU - LEA ARTIBAI - COLINDRES - LAPURDI